




# OSALAN

Laneko Seguratasun eta Osasunaren Erakundeak  
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

## ERAIKUNTZA LANAK EGIN BITARTEKO SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILEAREN GIDALIBURU PRAKTIKOA



P.B.N. - 16 €



Erakunde arautzailea  
Organismo Autónomo 44

**OSALAN**  
GIDALIBURU PRAKTIKOA

Jardilea, Lan eta  
Osasunaren Erakundeak  
Departamentuak: Lan, Osasun  
eta Seguratasun Erakundeak

# ERAIKUNTZA LANAK EGIN BITARTEKO SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILEAREN GIDALIBURU PRAKTIKOA

---



**OSALAN**

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea  
*Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales*

Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del

**EUSKO JAURLARITZA**

Justizia, Lan eta  
Gizarte Segurantzza Saila



**GOBIERNO VASCO**

Departamento de Justicia,  
Empleo y Seguridad Social

Argitaraldia: 2007ko abendua

Ale kopurua: 3.000 ale

© OSALAN  
Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea  
Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Autonomiaduna

Internet: [www.osalan.net](http://www.osalan.net)

Argitaratzailea: OSALAN  
Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea  
Dinamita Bidea, z/g. - 48903 GURUTZETA-BARAKALDO (Bizkaia)

Egileak: Javier Pradera Diéguez. Osalan  
Javier Moreno Saracibar. Osalan  
Pedro Fernández Abiega. Auzerlan  
Yolanda García Prada. Colegio de Aparejadores  
Enrique Morón Etxenike. Tesysal  
José Luis Fernández Ferreras. Applas Norcontrol  
Jesús M<sup>a</sup> de Cos González. Vértigo Consulting  
Inaki Almodóvar Pérez. Ingecor

Azalaren diseinua  
eta fotokonposaketa: GARBER  
Concha Jenerala, 25-4<sup>o</sup>  
48010 BILBO

Inprimaketa: GERTU Inprimategia  
Tel. 943 783 309  
Oñati

ISBN 978-84-95859-43-3

D.L.: SS-1603-2007

## **AURKEZPENA**

OSALANek dituen eginkizunen arteko bat, ezbehar-tasaren eta horren eragileen inguruan aztertzea da, albait hoberen, lanpostuetako arriskuak desagerrarazi edo murriztuko dituzten neurriak ezartze aldera. Helburu hori lortzeko erabilitako baliabideen artean, honakoa bezalako Proiektuak daude, "Eraikuntzalanak egin bitarteko Segurtasun eta Osasun Koordinatzailearen Gidaliburu Praktikoa" deritzona, hain zuzen ere. Honako hau, kanpaina, argitalpen eta abarren bidez ezagutarazi eta helarazten zaie gizarte-eragileei.

Eraikuntza-obretako Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan aldaketak bideratzeko beharrezkoak diren baliabideen bitartez laguntzea lehentasunezkoa da Administrazioarentzat eta, horregatik, obrek dirauten bitartean Koordinazioaren nondik norakoak azaltzen dituen argitalpen hau egiteko, Teknikari adituen (Koordinatzaileak, Laneko Agintaritzak, enpresak, etab.) laguntza izan da, horiek gabe, ezinezkoa izango baitzen burutzea.

Hitz batez, Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileen gomendioen bitartez, haien jarduera dinamizatzea da helburua, eraikuntza-eremuan eragile aktiboak diren heinean, eta, bestetik, obra-fase edo –aldi ezberdinetako lan-baldintzei buruzko azterlanak egitea ahalbidetzen du. Izan ere, obraren fase bakoitzari dagokion Segurtasun eta Osasunaren plangintza egokia egin eta txertatuz, Laneko Arriskuen Prebentzioaren kudeaketa lagungarria bideratuko baita.

**Ignacio Murguía Mañas**  
DIRECTOR GENERAL DE OSALAN



## AURKIBIDEA

1. Sarrera .....	7
2. Definizioak eta betebeharrak.....	9
2.1. Definizioak.....	9
2.2. Betebeharrak eta Eginkizunak .....	10
2.3. Segurtasun- eta osasun-koordinatzailea. Profesionalaren egitekoa eta profila .....	14
3. Obra hasi aurreko koordinazioari buruzko alderdiak .....	17
3.1. Lortu beharreko informazioa.....	17
3.2. Sustatzailearentzako informazioa.....	18
3.3. Koordinazioaren lan-metodologia .....	18
4. Obra egin bitarteko Segurtasun eta Osasun Koordinazioaren garapena .....	21
4.1. Obra gauzatzeko Proiektuaren Azterketa .....	21
4.2. Segurtasun eta Osasun Azterlanaren Azterketa.....	21
4.3. Segurtasun eta Osasun Plana aztertu eta onartzea.....	22
4.4. Intzidentzia-liburua eskuratzea .....	24
4.5. Azpikontratazioaren liburua .....	27
4.6. Segurtasun-koordinazioari buruzko lehen bilera .....	27
4.7. Obrarako sarbidea kontrolatzea .....	30
4.8. Enpresa, langile eta makineriari buruzko obrako dokumentazioa gainbegiratzea .....	31
4.9. Segurtasun-koordinazioari buruzko aldizkako bilerak .....	33
4.10. Informazioa Zuzendaritza Fakultatiboari eta Sustatzaileari jakinaraztea .....	35
4.11. Obrarako segurtasuneko bisitak.....	36
4.12. Istripuak ikertzen laguntzea .....	37
4.13. Koordinazioaren amaiera.....	38
4.14. Eginkizun eta betebeharren laburpen-laukia .....	39
5. Eranskinak.....	43



## 1. SARRERA

1995. urtean, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea onartu zenean, langileen osasunaren babesari buruzko esparru arautzaile berria ezarri zen. EEEK, arlo honen inguruko politika komunitarioa definitzen aritu eta, 89/391/EEE Zuzentarauen bitartez, politika hori aplikatzeko marko juridikoa ezarri zuen, langileen Segurtasun eta Osasun baldintzak hobetzeko modurik egokientzat, Laneko Arriskuen Prebentzioa aukeratuz.

Goian aipatutako Lege horrek Zuzentzarua gure Antolamendu Juridikora egokitu ahala, espainiar estatuan politika komunitario hori aplikatzeko tresna egoki bilakatu zen.

Gainera, erkidegoaren eremu osoko Eraikuntza-sektorean zeuden baldintza bereziak eta istriputasaren jakitun, EBk arlo honen inguruko berariazko araudia ateratzea lehentasunezkoztat jo, eta aldi baterako eraikuntza-lanetan eta mugikorretan aplikatu beharreko Segurtasun eta Osasunaren gaineko gutxieneko xedapenei buruzko 92/57/EEE Zuzentzaruan jaso zen.

Urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren bitartez, Zuzentzari hori Espainiako Antolamendu Juridikora egokitu zen. Errege Dekretu honek, Sustatzailearen, Proiektugilearen, Kontratugilearen, Azpikontratugilearen eta langile autonomoen betebeharrak jorratzeaz gain, beste bi irudi jaso zituen: proiektua burutu bitarteko Segurtasun eta Osasun Koordinatzailea eta obra egin bitarteko Segurtasun eta Osasun Koordinatzailea.

Dena den, hori onartu zenetik iragandako hamar urte hauen ondoren, profesional hauek behar bezala definitzeko bezain egokiak ez direla ikusi da, oraindik ere haien eginkizunek eta jarduerak interpretazio kontraesankorrak sortzen baitituzte.

OSALANek, Laneko Arriskuen Prebentzioaren inguruan dituen eginkizunak gizarte-eragileen artean betez, eta Segurtasun eta Osasun Koordinatzailearen (eraikuntza-sektorean baino ez dagoen irudia) garrantziaz jabetuz, agiri bat prestatzea erabaki du, Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak garatu beharreko eginkizunak deskribatuz, haren eginbeharrak argitzen eta betetzen laguntzeko asmoz. Horretarako, Segurtasun eta Osasunaren Koordinazioan adituak ziren Teknikariek osatutako lantaldea eratu zen, eta haren emaitza honako hau dugu, hots: "Eraikuntza Lanak egin bitarteko Segurtasun eta Osasun Koordinatzailearen Gidaliburu Praktikoa".

Adituek, egindako ekarpenez, eztabaidatuz eta hausnartuz, honako hauek nabarmendu dituzte: Segurtasun eta Osasun arloko Sustatzailearen esku-hartzeak duen garrantzia, horrekiko izan behar duen konpromisoaren beharra eta obrak dirauen bitartean, hau da, proiektua egiten denetik obra amaitu eta entregatzen den arte, hartzen diren erabakietan kontuan hartzeko betekizuna.

Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea, proiektu-aldiko koordinatzailea eta obra bitarteko koordinatzailea pertsona bera izatea komeniko litzatekeela, honela, prozesu osoan zehar koherentzia erantsiko bailitzaioke segurtasunaren txertatze horri; komenigarria da, orobat, eta obran esku hartzen dutenen eginkizunak mugatzeko, segurtasuna koordinatzeaz arduratzen den pertsonak obra berean beste egitekorik ez izatea, hots, ez ditzala koordinazio-lan horiek burutu bitartean, proiektua idatzi edo zuzendaritza-lanak garatu..

Gidaliburu honen xedea Koordinatzaile-lanaren inguruan orientabideak eta laguntzea ematea da, hala testuaren, nola erantsitako dokumentuen aldetik, eta obra bakoitzaren ezaugarriak eta baldintzak gorabehera, norberaren esku gelditzen da horiek erabiltzeko irizpidea aukeratzea.





## 2. DEFINIZIOAK, BETEBEHARRAK ETA EGINKIZUNAK

Obretan esku hartzen duten eragile bakoitzak Segurtasun eta Osasunaren arloan dituen betebeharrak eta eginkizunak gogorazi aurretik, komenigarria eta argigarria dirudi 1627/1997 EDko 2. artikuluan jasotako definizioak gogorarazteak.

### 2.1.- Definizioak

a) ERAIKUNTZA-LANA EDO OBRA: ondorengo zerrendan, zehazki ez bada ere, azaltzen diren eraikuntza edo ingeniari-tzibileko lanak barne hartzen dituen edozein obra publiko edo pribatu:

- Hondeaketa
- Lur-mugimenduak
- Eraikuntza
- Aurrefabrikatutako elementuak muntatu eta desmuntatzea
- Egokitzapena edo instalazioak
- Eraldaketa
- Birgaitzea
- Konpontzea
- Desegitea
- Eraispena
- Mantentzea
- Kontserbazioa-Pintura- eta garbiketa-lanak
- Saneamendua

b) SUSTATZAILEA: Obra arduratzen den edo haren erantzukizuna duen edozein pertsona fisiko edo juridiko.

Sustatzaileak obra-zati guztiak edo batzuk zuzenean, hots, bere giza baliabide eta baliabide materialez egiten dituenean, kontratugileztat joko da.

Sustatzaileak, obra edo bertako lan jakin batzuk egiteko langile autonomoak kontratatzen dituenean, 1627/1997 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, kontratugilea izango da haiekiko.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko, kontratatutako jarduera, bakarrik, familiaburu batek bere etxebizitzarako kontrata ditzakeen eraikuntza- edo konpontze-lanetarako.

c) OBRA-PROIEKTUA EGIN BITARTEKO SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILEA: Sustatzaileak, obra-proiektuaren faseak dirauen bitartean, 1627/1997 EDko 8. artikuluan aipatzen diren printzipioen aplikazioa koordinatzeko izendatutako teknikari eskuduna.

d) OBRA EGIN BITARTEKO SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILEA: 1627/1997 EDko 9. artikuluan eta eraikuntza-lanetako segurtasun eta osasunari buruzko arautegian aipatzen diren lanak egiteko sustatzaileak izendatutako eta Zuzendaritza Fakultatiboan barne hartutako Teknikari eskuduna.

- e) ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA: Sustatzaileak izendatuta, obra zuzendu eta kontrolatzeaz arduratzen den/diren Teknikari eskuduna/ak.
- f) KONTRATUGILE EDO ENPRESABURU NAGUSIA: Sustatzailearekin sinatutako kontratu bidez, obra osoa edo obraren zati bat, proiektua edo kontratua betez, bere edo kanpoko giza baliabide edo baliabide materialez egiteko konpromisoa hartzen duen pertsona fisiko edo juridikoa.

Kontratua, obra zuzenean gauzatzen ez duen Aldi baterako Enpresa Elkarte batekin egiten denean, elkarte horretako kide diren enpresa guztiak enpresa kontratugiletzat joko dira, dagokien obratzat.

- g) LANGILE AUTONOMOA: bere lanbide-jarduera pertsonalki edo zuzenean eta lan-kontraturik sinatu gabe egiten duen pertsona fisikoa, Kontratugilea edo Azpikontratugilea izan gabe, eta obrako zati edo instalazio batzuk egiteko Sustatzailearekin, Kontratugilearekin edo Azpikontratugilearekin kontratu bidez konpromisoa hartzen duena.

Langile autonomoak obrarako besteren kontura lan egiten duten langileez baliatzen denean, Kontratugile edo Azpikontratugiletzat joko da.

- h) AZPIKONTRATAZIOA: ekoizpena antolatzeko merkataritza-jarduera; honen bitartez, kontratugileak edo azpikontratugileak beste azpikontratugile edo langile autonomo bati berari agindutako lanaren zati bat enkargatzen dio.

Azpikontratazio-maila: Azpikontratazio-mailak honako hauetan biltzen dira: Eraikuntza Sektoreko Azpikontratazioa arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legean (250. BOE), eta lege hori garatzen duen abuztuaren 24ko 1109/2007 EDan (204. BOE).

- i) AZPIKONTRATUGILEA Kontratugilearekin edo beste azpikontratugile komisio-emaile batekin kontratu bidez, obraren zati edo unitate jakin batzuk egiteko konpromisoa hartzen duen pertsona fisiko edo juridiko. 1627/1997 Errege Dekretuak aipatzen dituen kontratugile eta azpikontratugilea, enpresaburutzat joko dira, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko araudian aurreikusitako ondorioetarako.

## **2.2.- Betebeharrak eta eginkizunak**

### 2.2.1.- SUSTATZAILEA

- a) Oinarrizko Azterlana edo Segurtasun eta Osasun azterlana egingo duen Teknikari eskuduna izendatzea.
- b) Hala eska badaiteke, proiektuaren eta obra bitarteko faseetan Segurtasun eta Osasun Koordinatzeko eginkizunez arduratuk oden Teknikari eskuduna izendatzea
- c) Laneko agintaritzari Aurrez Jakinaraztea, obran ikusteko moduan jartzea eta eguneratzea, baldin eta obran, hasiera batean lan-arloko agintaritzari igorritako oharrean Segurtasun edo Osasun Koordinatzailearen bat edo Kontratugileren bat hasiz gero (1109/2007 EDko 3. AX).

### 2.2.2.- SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILEA

Segurtasun eta Osasun arloko Koordinatzaileak, ondorengo eginkizun hauek izango ditu obra egiten den bitartean:

- a) Prebentzio eta segurtasunari buruzko printzipio orokorren aplikazioa koordinatzea:
  - Teknika- eta antolakuntza-arloko erabakiak hartzerakoan, aldi berean edo elkarren segidan garatuko diren lan ezberdinen edo lan-fase ezberdinen plangintza egiteko helburuarekin.
  - Lan edo lan-fase ezberdin hauek egiteko behar izango den denbora balioestean.
- b) Obrako jarduerak koordinatzea, kontratugileek eta, hala badagokio, azpikontratugileek eta langile autonomoek, obra eta bereziki, 1627/1997 EDko 10. artikulua aipatzen dituen lan edo jarduerak, burutzen dituzten bitartean, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 15 artikuluan jasotako prebentzio-ekintzaren printzipioak koherentziaz eta erantzukizunez aplikatzen direla bermatzeko.
- c) Kontratugileak prestatutako Segurtasun eta Osasun Plana eta, hala badagokio, horri erantsitako aldaketak onartzea 1627/1997 EDaren 2.7. artikuluko 2. ataleko azken paragrafoan ezarritakoari jarraiki, Zuzendaritza Fakultatiboa arduratuko eginkizun honetaz, koordinatzaileak izendatzea beharrezkoa ez denean.
- d) Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikuluan aurreikusitako enpresa-jardueren koordinazioa antolatzea.
- e) Lan-metodoak behar bezala aplikatzen direla kontrolatzeko ekintzak eta eginkizunak koordinatzea.
- f) Obran, bakar-bakarrik baimena duten pertsonak sartzeko moduko neurriak hartzea. Zuzendaritza Fakultatiboa arduratuko da eginkizun honetaz, koordinatzailea izendatu behar ez denean.

Gidaliburu honetako 4 atalean, eginkizun hauek garatzeko gomendioak jaso dira, segurtasun- eta osasun-koordinatzaileari obrak dirauen bitartean lana errazteko.

### 2.2.3.- KONTRATUGILEAK ETA AZPIKONTRATUGILEAK

1. Honako betebeharrak hauek izango dituzte kontratugileek eta azpikontratugileek:

- a) Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 15 artikuluan jasotako prebentzio-ekintzaren printzipioak aplikatzea, eta bereziki, 1627/1997 EDko 10. artikulua aipatzen dituen lan edo jarduerak garatzea.
- b) 1627/1997 EDak aipatzen duen Segurtasun eta Osasun Planean ezarritakoa betetzea eta bere langileei betearaztea.
- c) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzea, kontuan izanda, egoki izanez gero, orain 171/2004 EDak garatu duen Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikuluan enpresaburuentzat ezarritako koordinazio-jarduerari buruzko betekizunak, eta obra egiten ari den bitartean. 1627/1997 EDko IV. eranskinean ezarritako gutxienezko xedapenak betetzea Azpikontratazioa arautzen duen 32/2006 Legean eta berau garatzen duen 1109/2007 EDan ezartzen diren xedapenak betetzea.

- d) Obran, segurtasun eta osasunaren inguruan hartu behar diren neurri guztiei buruzko jarraibideak langile autonomoei jakinarazi eta helaraztea.
- e) Obra egiten ari den bitartean, Segurtasun eta Osasun Koordinatzailearen eta, hala badagokio, Zuzendaritza Fakultatiboaren aholkuei erreparatzea eta jarraibideak betetzea.

2. Kontratugileek eta azpikontratugileek, Osasun Planean beraiei zuzenean, edo beraiek kontratatutako langile autonomoei egotzitako betekizunei buruz ezarritako prebentzio-neurriak behar bezala betetzen direlako erantzukizuna izango dute.

Planean aurreikusitako neurriak ez betetzeagatik sor litezkeen ondorioei solidarioki erantzungo diete, laneko arriskuen prebentzioari buruzko legearen 42. artikulua 2. atalean ezarritakoari jarraiki.

3. Koordinatzaileen, Zuzendaritza Fakultatiboaren eta Sustatzaileen erantzukizunek, ez dituzte kontratugileak eta azpikontratugileak beren erantzukizunetatik salbuetsiko.

4. Eraikuntza-sektoreko azpikontratazioa arautzen duen 32/2006 Legea eta berau garatzen duen 1109/2007 ED betez, enpresa batek eraikuntza-prozesu batean kontratugile edo azpikontratugile gisa esku hartu ahal izateko, honako hauek bete beharko ditu:

- a) berezko ekoizpen-erakunde baten jabe izatea, beharrezko baliabide material eta giza baliabideak edukitzea, eta horiek kontratatutako jarduera garatzeko erabiltzea.
- b) Enpresa-jardueraren garapenari dagozkion arrisku, betekizun eta erantzukizunak bere egitea.
- c) Bere langileek garatutako lana zuzenean antolatu eta zuzentzea.

Gainera, eraikuntza-obretan lanak egin nahi izatekotan, honako hauek ere bete beharko ditu:

- Zuzendaritza- eta ekoizpen-arloan, laneko arriskuen prebentzioari zein prebentzioaren antolaketaari buruzko behar beste prestakuntza duten giza baliabideak dituztela egiaztatzea.
- Ziurtatutako Enpresen Erregistroan inskribatuta egotea.

5. Eraikuntza-sektoreko azpikontratazioa arautzen duen Legeari jarraiki, bere jarduera kontratatzen edo azpikontratitzen dituzten enpresek, kontratu mugagabeak dituzten langileen 1109/2007 EDko 1. Xlan adierazitako portzentajea bete beharko dute.

6. Lehen eta bigarren azpikontratugileak, bakoitzari kontratupean esleitutako lanak azpikontratatu ahalko dituzte, ez ordea, obran jartzen duten ekoizpen-antolaketa, batik bat, eskulana ekartzean oinarrituta dauden enpresek.

7. Hirugarren azpikontratugileak ezingo du azpikontratatu berari beste kontratugile batek edo langile autonomo batek agindutako lanak; bai ordea, behar bezala justifikatutako lanak baldin badira eta, betiere, Zuzendaritza Fakultatiboak bere baimena eta kontratatze horren arrazoia azpikontratazioaren liburuan jasoz gero

Azpikontrazioaren salbuespen hau ez zaie langile autonomoei eta obran eskulana baino jartzen ez duten enpresei aplikatuko, halaberrezkoa ez bada, behintzat.

8. 7. ataleko salbuespenezko azpikontrazioaren kasua ematen denean, segurtasun- eta osasun-koordinatzaileari eta langileen ordezkariari eman beharko die kontratugileak honen berri.

9. Era berean, agintaritzari ere eman beharko zaio salbuespenezko azpikontrazio horren berri, onartu eta hurrengo 5 lanegunetan honako hauek igorri: beharraren nondik norakoak azaltzen dituen txostena eta Azpikontrazioaren liburuan egindako oharren kopia bat.

10. Enpresa bakoitzak, erabiltzen dituen makinak bereak dituela egiaztatuko duen dokumentazio edo tituluaren, eta indarrean dauden lege-xedapenek eskatzen dituzten agiri ororen jabe izan beharko du.

#### 2.2.4.- LANGILE AUTONOMOAK

1. Langile autonomoek honako betebeharrak hauek dituzte:

- a) Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 15 artikuluan jasotako prebentzio-ekintzaren printzipioak aplikatzea, eta bereziki, 1627/1997 EDko 10. artikulua aipatzen dituen lan edo jarduerak garatzea.
- b) Obra egiten ari den bitartean, 1627/1997 EDko IV. eranskinean ezarritako gutxienezko xedapenak betetzea.
- c) Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak, 29. artikuluko 1. eta 2. atalean, langileentzat laneko arriskuen prebentzioaren inguruan ezartzen dituen eginbeharrak betetzea.
- d) Obrako bere jarduna, 171/2004 EDak garatutako Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikuluan enpresaburuentzat ezarritako koordinazio-jarduerei buruzko betekizunen arabera burutzea, jarduera koordinatuan ezarritako edozein neurri berezi betez.
- e) Langileek lan-tresneria erabiltzerakoan segurtasun- eta osasun-arloetan errespetatu beharreko gutxienezko xedapenak ezartzen dituen uztailaren 18ko 1215/1997 EDan ezarritakoa betetzen duten lan-ekipoak erabiltzea.
- f) Langileek norbanakoen babeserako ekipoak erabiltzeari buruzko gutxienezko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 EDan aurreikusitakoak betetzen dituzten norbanakoen babeserako ekipoak aukeratu eta erabiltzea.
- g) Obra egiten ari den bitartean, Segurtasun eta Osasun Koordinatzailearen eta, hala badagokio, Zuzendaritza Fakultatiboaren aholkuei erreparatzea eta jarraibideak betetzea.

2. Langile autonomoek segurtasun- eta osasun-planeari ezarritakoa bete beharko dute.

3. Azpikontrazioa arautzen duen Legea betez, langile autonomoek ezingo dituzte beraiei, beste enpresa azpikontратugile batzuei edo beste langile autonomo batzuei esleitutako lanak azpikontратatu, halaberrezkoa ez bada, behintzat.

4. Langile autonomoek autonomia osoarekin eta bere erantzukizunpean eta kontratatu dituen enpresaren antolaketa- eta zuzendaritza-eremutik kanpo lan egingo dute.

### **2.3.- Segurtasun eta osasun koordinatzailea. Profesionalaren egitekoa eta profila**

1627/1997 EDa onartu zenetik luze iragan arren, eraikuntza eta Administrazioako eragileek, oraindik ere, interpretazio ezberdinak egiten dituzten Koordinatzailearen profil profesionalaren, haren egitekoen eta garatu beharreko lanen inguruan.

Langileen Segurtasuna eta Osasuna guztion eginkizuna da. Legegilearen, sustatzaileen -publiko zein pribatu-, teknikarien, eraikuntza-enpresen, horien prebentzio-zerbitzuen, langileen, sindikatuen, makina, erreminta eta baliabide osagarrien fabrikatzaileen, eraikuntza-produktuen fabrikatzaileen, lanbide-heziketako sistemaren, hezkuntza-sistemaren, epaileen eta familien esku dago.

Marko honetan, eragile bakoitzak dagozkion betekizunak bere egin behar ditu. Koordinatzaileak ezin ditu beste eragileak ordezkatu, ezta arlo honetako gabeziak ordeztu ere; beraz, koordinatzailearen esku-hartzea ez da eraginkorra izango, tarteko eragile bakoitzak dagokion eginkizunaz jabetzen ez bada eta dagozkion betekizunak bete, eta bere erantzukizunak bere egiten ez baditu.

Koordinatzaileak osasuna zaindu behar duela inork zalantzatan jartzen ez badu ere, sarritan honakoak bezalakoak egitea eskatzen zaio: arriskuen ebaluazioa, enpresaren segurtasun-plangintza, edo langileen prestakuntza eta bestelako eginkizunak koordinatzailearen arduratupekoak direla suposatzen da, besterik gabe, hori, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legearen eta ondorengo aldaketen arabera, enpresak bere prebentzio-zerbitzuaren bitartez egin beharreko zerbait denean.

Enpresako hizketakideek zein langile autonomoek eta prebentzio-baliabideek, argi izan behar dute beren eginkizunak zeintzuk diren, dagokien eginkizuna eta obrako prebentzio-egitura osatzen duten besteekiko erlazioa.

Koordinatzailearen egitekoa ez da obrako segurtasun-neurriak zaindu eta ikuskatzea, eginkizun hau enpresako tartekoei dagokie; koordinatzailearen eginkizuna, nolabait, eraikuntza-prozesuko, hots, obraren diseinutik ustiapenerako parte-hartzaile ororen ekarpenean eta lankidetzan datza.

Obra egiten den bitartean, berori hasi aurretik eta bertan esku hartuko duten enpresen, haien ezaugarrien eta prebentzio-antolamenduaren baldintzak ezarri baino lehen, horien jarduera koordinatu eta segurtasun-planak eta lan-prozedurak aplikatu eta txertatzeko kontrol-mekanismoak ezartzeko, oinarrizatzat zer-nolako egitura beharko duen finkatu beharko du segurtasun-koordinatzaileak.

Obran esku hartzen dutenen arteko lankidetzan, komunikazioa eta informazio-trukea antolatzen helburuarekin garatu beharko du koordinatzaileak bere lana, prebentzio-ekintzaren printzipioak aplikatze aldera, eta horretarako, jarduerak batera ematea edo elkarren segidako jardueren hasiera eta amaiera bat etortzea ekarri dezaketen koordinazio gabeko edo arrisku egoera izan beharko ditu kontuan, batik bat.

Segurtasun Koordinatzailearen jarduera, jarrera posibilista izanik garatu behar da, obra bakoitzean, eskura dauden baliabideak medio, ahalik eta segurtasun-baldintzarik egokienak izaten saiatuz.

Azkenik, adierazi behar da segurtasun- eta osasun-koordinazioari datxezkion jarduerak egoki buru ahal izateko, profesionalak honakoak bete beharko lituzkeela:

- Eraikuntza-teknika eta -prozesuak ezagutzea.
- Segurtasun eta osasunaren esparruari dagokion legeria ezagutzea.
- Prebentzio-teknikak ezagutzea..
- Berari eta eraikuntza-prozesuko gainerako eragileei dagozkien betebeharrak zeintzuk diren jakitea.
- Enpresen eta eraikuntza-sektorean bere lana burutzen duten pertsonen arteko negoziatzaile ona izatea.
- Zuzendu beharko dituen lan-bileren dinamika menderatzeko behar den orotan trebea izatea (ideiak eta ekarpenak moderatu, sustatu eta baloratzea eta, diren bezala aurkeztea, eta bilera ondorio positiboetan sintetizatu eta laburbiltzea)..
- Prebentzioaren kanpo-egitura ezagutzea: administrazioa, KPZak, etab.





### 3. OBRA HASI AURREKO KOORDINAZIOARI BURUZKO ALDERDIAK

Eraikuntza-, konpontze- edo mantentze-lanetan esku hartuko duten langileen zein etorkizuneko erabiltzaileen segurtasun eta osasunaren inguruko alderdiak, kontuan izan behar ditu Sustatzaileak, eraikitzeke idea sortzen denetik hartzen dituen erabaki guztietan. Beraz, Sustatzailearen konpromiso argiak garrantzi handia dauka, prozesu osoan zehar prebentzioaren kudeaketa koherentziaz burutu nahi bada.

Proiektuaren zein gauzatzearen fasean esku hartzen duten teknikariek, bakoitzak dagokion esparruan, bere betebeharrak zeintzuk diren gogoratu behar dio Sustatzaileari, eta baita, arriskuen berri eman ere, erabakiak hartzerakoan parte eta esku har dezan.

Proiektua egin bitarteko segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak eta/edo Segurtasun eta Osasun Azterlana idatziko duenak, eraikuntza segurua diseinatzen laguntzeaz gain, Sustatzaileari enpresei kontratu bidez eskatu eta arautu daitezkeen alderdiei buruzko aholkuak eman ahal dizkio, obra osoa edo horren zati bat esleitzerakoan; eta hau, garrantzitsua da.

Teknikari batek sustatzaile baten proposamena jasotzen duenean, eta proposamen horretan obra batez egin bitarteko segurtasun- eta osasun-koordinazioaz arduratzeko eskatzen badio, eta alde zurratik, obra horren ez proiektu-faseko segurtasun- eta osasun-koordinatzailea, ezta Segurtasun eta Osasun Azterlana idatzi duena izan ez bada, Sustatzailearekin baldintza ekonomikoak eta kontratu-baldintzak adostu aurretik, ondorengoak lortzeko beharrezkoak diren bilerak egitea komeni da:

- a) Burutu nahi den obraren Koordinazioari buruzko behar adina informazio eskuratzea.
- b) Sustatzaileari, Segurtasun eta Osasunaren alorrean dagozkion betebeharren berri ematea.
- c) Sustatzaileari, obrako segurtasuna koordinatzeko aplikatu beharreko lan-metodologia aurkeztea.

#### 3.1.- Lortu Beharreko Informazioa

Segurtasun-koordinatzaileak, bere esku-hartzearen irismena eta bere lan-metodologia definitu ahal izateko, eta horren arabera, Sustatzailearekin elkarren arteko harremanak arautuko dituzten baldintza ekonomikoak eta kontratu-baldintzak adostu ahal izateko, gauzatu beharreko obrari buruzko informazio zehatza izan behar du eta, beraz, honakoak gomendatzen dira:

1. Segurtasun Proiektua eta Azterlana edo Oinarrizko Proiektua izatea, fase bakoitzari zein obra osoari dagokiona ezagutzeko eta aplikatzeko, obraren Segurtasun eta Osasun Koordinazio egokia burutu ahal izateko funtsezkoa baita osotasunaren ikuspegia izatea.
2. Berak esku hartu gabe esleitu diren obra-faseei buruzko informazioa izatea, hau da, zein enpresa kontratu diren jakin eta horien prebentzio-egitura, Sustatzaileak Segurtasun eta Osasun alorreko zein baldintza eskatu dizkien eta, idatzita baleude, Segurtasun Plana edo Planak ezagutu beharko lituzke.
3. Obra-fase bakoitzaren epeak edo obra osoaren epea ahalik eta zehatzen ezagutzea, laneko segurtasun- eta osasun-arloko koordinazio egokia gauza dezan.

### 3.2.- Sustatzailearentzako Informazioa

Sustatzaileak argi izan behar du obran zein den bere eginkizuna segurtasun eta osasunaren inguruan eta, horretarako, alderdi garrantzitsuenetako batzuk gogoraraztea komeni da, hots:

1. Zuzendaritza Fakultatiboa izendatu behar duela, ahalik eta zehatzen horren eta Segurtasun Koordinatzailearen artean etorkizunean izango diren harremanak ezarriz, hau da, obrako segurtasunari eta gauzatzeko teknikoari dagozkien alderdiak bereiziz.
2. Aldez aurretiko Abisua izapidetu behar duela (1627/0997 EDko, III. eranskina).
3. Langile autonomoak zuzenean kontratatzen dituzenean, horien kontratugile izaera izango duela.
4. Sustatzaileak obra-zati guztiak edo batzuk zuzenean, hots, bere giza baliabide eta baliabide materialez egiten dituzenean, kontratugiletzat joko dela.
5. Sustatzaileak enpresei, obraren berariazko arriskuak (segurtasun- eta osasun-azterlanaren bitartez) jakinarazi, eta koordinatzailearen bidez, arrisku horiek prebenitzeko bete beharreko arauak eta larrialdiren bat gertatzekotan hartu beharreko neurriak helarazi behar dizkiela.
6. Obra egin bitarteko Koordinatzailea izendatzeak, ez duela dagozkion erantzukizunetatik salbuesten, eta Koordinatzailearen beraren eta Zuzendaritza Fakultatiboaren ez betetzeak bere ardurapekoak izango direla (51/2003 Legearen 10. artikuluko, 7. puntuko, "d" eta "e" paragrafoak).
7. Funtsezkoa da, Sustatzaileak Koordinatzaileari obran esku hartzen duten eragile guztien aurrean eskaini behar dion laguntza, eta hain da garrantzitsua, ezen laneko Segurtasun eta Osasun arauak eta neurriak betetzen ez dituzten enpresa, langile eta autonomoak, zigortzeko gai izango dela.
8. Enpresa kontratugileek eta azpikontratugileek, Azpikontratazioa arautzen duen Legearen 4. artikuluko 3. puntuan jasotako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.

### 3.3.- Koordinazioaren Lan-Metodologia

Informazioa amaitu ostean eta eskaintza prestatu baino lehen, obraren kokapena ezagutzeko bisitaldi bat egitea gomendatzen zaio Koordinatzaileari, horrela, zuzenean ezagutuko baititu kokapenaren eta ingurunearen zehaztasunak eta, idatzita balego, Segurtasun eta Osasun Azterlanean eta Planean behar bezala islatu eta jaso direla egiaztatu.

Horrela, Koordinatzaileak lan-metodologia planteatzeko moduan egongo da, eta horretan, honako hauek izan beharko ditu aintzat:

- a) Obraren prebentzioari buruzko organigrama, arreta berezia prebentzio-baliabideak bertan izatea eskatzen duten faseei eskainiz.
- b) Kontratugile berri bat obran esku hartzen hasten den bakoitzean, Sustatzaileak Koordinatzaileari eman behar dion informazioa.

- c) Koordinazio-bilerak egiteko irizpideak (aldizkakotasuna, deialdia, erabakiak hartzea, jarraipena, etab.).
- d) Obra bisitatzeko irizpideak.
- e) Intzidentzien liburua eta haren erabilera kontrolatzeko irizpideak.
- f) Obrara sartzen diren pertsona eta ibilgailuen kontrola arautuko duten irizpideak.
- g) Obrako garbitasun eta txukuntasunaren inguruko jarraibideak.
- h) Esku hartzen dutenen artean informazioa eta jarraibideak helarazteko eskema eta irizpideak.
- i) Larrialdietako jarduerak definitzeko irizpideak.
- j) Zehaztu gabeko alderdiak.

"Zehaztu gabeko alderdiak" izeneko azken puntu honi dagokionez, adierazi behar da, sarritan, koordinatzailea kontratatzerakoan, Sustatzaileak ezin izango diola honi obran esku hartuko duten enpresen inguruan behar duen informazioa helarazi, kontratazio-prozesua aurreratuta ez egoteagatik; informazio-falta hori ere koordinatzailearen lan-metodologian barne hartu beharko da, hain zehatz azaldu gabe. Horregatik, informazio ezaren ondorioz zehazteke utzi diren alderdiak zeintzuk diren adieraztea komeni da.

Lan-metodologia ezarri eta obrak zenbat iraungo duen aztertu ondoren, Koordinatzailea horri eskainiko dion lana zenbatesteko gai izango da, eta beraz, baita dagozkion zerbitzu-sariak ere.



## 4. OBRA EGIN BITARTEKO SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZIOAREN GARAPENA

Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak bere eginkizunak gara ditzan, beharrezkoa du obra goitik behera ezagutzeko behar duen dokumentazioaren jabe izatea, eta aurreikusten denaren arabera, honakoak izan beharko ditu: Exekuzio Proiektuak, Segurtasun eta Osasun Azterlana eta Kontratugileen Segurtasun eta Osasun Planak. Gainera, obran esku hartzen duten enpresa eta langile guztien artean Segurtasun eta Osasun Koordinazioa eraginkorra izateko behar beste jarduera garatuko ditu.

### 4.1.- Exekuzio Proiektuaren Azterketa

Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak sakon aztertuko du Exekuzio Proiektua, Segurtasun Plana eta obra bera bateratzeko y, ahal bada, lur-mugimenduetan ezpondek duten egonkortasuna, gomendatutako zimendatze-mota, eta abar zehaztuko dituen lurzoruaren azterlan genetikoa ere izango du.

Honela, obraren irismena eta nondik norakoak, fase ezberdinetarako aurreikusitako exekuzio-sistemak, materialen berezitasunak (izatekotan), eta abar ezagutuko ditu.

Jarduera hauen bitartez, 1627/1997 EDko 9. artikuluko a) eta c) atalen ondoriozko eginbeharrak betetzeko oinarriak ezarri ahal izango ditu:

- 1627/1997 EDko 9. artikuluko a) atala: *"Prebentzio eta segurtasunari buruzko printzipio orokorren aplikazioa koordinatzea"*.
- 1627/1997 EDko 9. artikuluko c) atala: *"Kontratugileak prestatutako segurtasun- eta osasun-plana eta, hala badagokio, bertan egindako aldaketak onartzea"*.

### 4.2.- Segurtasun eta Osasun Azterlanaren Azterketa

Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak sakon aztertu beharko ditu Segurtasun eta Osasun Azterlana edo Oinarritzko Azterlana (SOA eta SOOA), obran aurreikusitako arriskuak, hartu beharreko Segurtasun eta Osasun neurriak eta aurrekontu ekonomikoa ezagutzeko.

Azterlan honetatik, mota ezberdinetako gabeziak ondoriozta daitezke, hala nola: hartan jaso ez diren edo behar beste garatu ez diren obra-faseak, planorik eza, prezio unitario onartezinak, SOAren aurrekontu desegokia, etab. Segurtasun eta Osasun Azterlanean obrarako sarbidea kontrolatzeko kudeaketarako aurrekontu-partida (balioetsi beharrekoa) jasotzeko aukera aztertu beharko litzateka.

SOA/SOOA jasotako aurreikuspenak eta berori aztertu ondoko oharrak, "X eranskina: SOA-SOParen Azterketa" deritzon jaso ditzake Segurtasun Koordinatzaileak.

- Sustatzaileari jakinaraziko zaio, obrako kontratugile orori SOA/SOOA jasotako informazioa helaraztea komeni dela, jakin dezan eta informazio horretan oinarrituta, Segurtasun eta Osasun Azterlana idatz dezan.
- Jarduera honen bitartez, 1627/1997 EDko 9. artikuluko a), c) eta d) atalen ondoriozko eginbeharrak betetzeko oinarriak ezarri ahal izango ditu:

- 1627/1997 EDko 9. artikuluko a) atala: "Prebentzio eta segurtasunari buruzko printzipio orokorren aplikazioa koordinatzea".
- 1627/1997 EDko 9. artikuluko c) atala: "Kontratugileak prestatutako segurtasun- eta osasun-plana eta, hala badagokio, bertan egindako aldaketak onartzea".
- 1627/1997 EDko 9. artikuluko d) atala: "LAPLaren 24 artikuluan aurreikusitako enpresa-jardueren koordinazioa antolatzea".

Jarduera hauetatik, honako agiri hau ondorioztatzen da

- X. Eranskina: SOA-SOOAren Azterketa.

### 4.3.- Segurtasun eta Osasun Plana Aztertu eta Onartzea

Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak Kontratugilearen Segurtasun Plana aztertu, obrarako egokia den eta Segurtasun Azterlanean aurreikusitakoaren arabera den aztertu beharko du. Aurrekoari jarraiki, "Segurtasun eta Osasun Plana Onartzeko Akta" izeneko agiria idatzi eta sinatuko du berori onesteko.

Sustapen publikoko obra bat izanez gero, berriz, "Administrazioak Segurtasun eta Osasun Plana Onartzeko Txostena" izeneko agiria egin beharko du. SOPen jasotako aurreikuspenak eta berori aztertu ondoko oharrak, "X eranskina: SOA-SOParen Azterketa" deritzonean jasoko dira.

Obran esku hartzen duen kontratugile bakoitzak, esleitu zaizkion lanei buruzko Segurtasun eta Osasun Plana aurkeztuko du, lanak hasi baino lehen, Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak onar dezan.

Segurtasun Plana nolabait aldatuko balitz, Kontratugileak aldaketa horiek biltzen dituen Eranskina aurkeztu beharko dio Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileari, hau ere, onar dezan.

Behar bezala eta frogatuz onartutako Segurtasun eta Osasun Planean jasotako informazioa bere azpikontratugile eta langile autonomoei helarazteko eskatuko die Koordinatzaileak kontratugileei, ezagutu eta aplikatu ahal izateko, eta neurri alternatiboak proposatu ahalko dira, Eranskinak aurkeztuz.

Jarduera honen bitartez, 1627/1997 EDko 9. artikuluko a), c) eta d) atalen ondoriozko eginbeharrak betetzeko oinarriak ezarri ahal izango ditugu:

- 1627/1997 EDko 9. artikuluko a) atala: "*Prebentzio eta segurtasunari buruzko printzipio orokorren aplikazioa koordinatzea*".
- 1627/1997 EDko 9. artikuluko c) atala: "*Kontratugileak prestatutako segurtasun- eta osasun-plana eta, hala badagokio, bertan egindako aldaketak onartzea*".
- 1627/1997 EDko 9. artikuluko d) atala: "*LAPLaren 24 artikuluan aurreikusitako enpresa-jardueren koordinazioa antolatzea*".

Jarduera hauetatik, honako agiri hauek ondorioztatzen dira:

- X. Eranskina: SOA-SOOaren Azterketa.
- VII A Eranskina: Segurtasun eta Osasun Plana Onartzeko Akta eta Administrazioak Segurtasun eta Osasun Plana Onartzeko Txostena.

Segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak Segurtasun eta Osasun Plan onartu ahal izateko, haren edukiak 1627/1997 EDko 7 artikuluan ezarritakoa zein 54/2003 Legearen 10 artikuluko 6a atalean xedatutakoa betetzen duela egiaztatuko du. Horretarako, honako irizpide hauek kontuan izatea gomendatzen da:

- 1º Segurtasun eta Osasun Azterlanean aurreikusitako datu, metodo eta exekuzio-sistema oro barne hartuko ditu.
- 2º Segurtasun eta Osasun Planak, Segurtasun eta Osasun Azterlanaren inguruko iradokizunak eta/edo alternatibak eransten baditu, hauek ezingo dute babes-maila murriztu.
- 3 Arriskuen ebaluazioek, prebentzioaren plangintzak eta aurreikusitako neurriek eta babesak obrako arazoen araberrakoak izan beharko dute, eta ez, orokorrak.
- 4º Bere osaerak, obrako segurtasuna planifikatu, antolatu eta kontrolatzeko balioko du.
- 5º Kontratugilea aldatuz gero, berriak, bere Segurtasun eta Osasun Plan propioa egin beharko du.
- 6º Memoriak, saihestezinezko arriskuen ebaluaziorako prozedura eta langileen Segurtasun eta Osasunerako babes eta/edo neurri tekniko egokienak barne hartuko ditu.
- 7º Obra-zati edo -unitate bakoitzari buruzko azterlanak, berori nola gauzatuko den (zein exekuzio-sistema, -metodo edo -prozedura erabilita) eta zein material, eskulan eta ekipoak erabiliko diren, horiek guztiek sor ditzaketen arriskuak murrizte aldera.
- 8º Larrialdi, ebakuazio, lehen laguntza, suteen aurkako borroka, eta abarretako prebentzio-jardueren diseinua (gertuen dauden asistentzia-zentroak adieraziz).
- 9º Obra-unitate edo -zatiaren programazioak, eskulanak, neurri teknikoek, talde zein norbanako babesek eta seinaleek baliozkoak izan beharko dute, bai obrak iraungo duen denbora-tarterako zein kopurua dela-eta.
- 10º Baldintzen pleguan, aurrez Segurtasun eta Osasun Azterlaneko memoriak aipatu eta obran erabiliko diren ekipo zehatzak jasoko ditu.
- 11º Aurrekontuan segurtasunerako aurreikusitako partidak egiazkoak izango dira eta, II. eranskineko lanetarako babesak zein lekutan jarriko diren adierazi beharko da.
- 12º Aurrekontuan ez da barne hartuko segurtasunari ez dagokion gorakako partidarik.
- 13º 171/2004 EDko 13 artikuluari jarraiki, prebentzio-baliabideen egiazko kokaguneak barne hartu beharko ditu.



#### **4.4.- Intzidentzia Liburua Eskuratzea**

Intzidentzia Liburuari buruzko oro, bere jaulkipena, erabilera eta gainerako alderdiak, eraikuntza-lanetako Segurtasun eta Osasun alorreko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 EDko 13. (1109/2007 EDak aldatutakoa) eta 14. artikuluek arautzen dituzte. Beraz, beste inolako lege-testutan arautu gabeko tresna berezia da.

Lanleketan Intzidentzia Liburu bana egongo da, Segurtasun eta Osasun Planaren arabera jarraipena egin ahal izateko. Orri bakoitzaren bina kopia izango ditu eta beteta egon beharko du; beraz, lehenengo orria bete dela egiaztatzea komeni da.

Honako hauek ematen dute Intzidentzia Liburua:

- a) Segurtasun Plana onartu duen Teknikariari dagokion elkargo profesionalak, hau da, diharduen bitartean Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileari edo Zuzendaritza Fakultatiboari (Koordinatzailea izendatzea beharrezkoa ez duten obren kasurako) dagokion elkargoak.
- b) Administrazio Publikoek sustatutako obrak direnean, Proiektuen Ikuskaritza Bulegoak edo organo baliokideak.

Intzidentzia Liburua obran egongo da beti, eta komenigarriena da, Koordinatzaileak Intzidentzia Liburua gordetzeko leku egokia aukeratzea eta liburua beti bertan izatea, eta horrekin batera, segurtasun plana edo planak eta obrako Segurtasun eta Osasunaren inguruko dokumentuak gordetzea.

Araudiak ezartzen duenaren arabera, beheago zerrendatzen direnak, izango dira liburua bereganatu eta bertan oharrak idazteko aukera izango dutenak:

- Zuzendaritza Fakultatiboa.
- Kontratugileak.
- Azpikontratugileak.
- Langile autonomoak.
- Obran esku hartzen duten enpresetan prebentzioaz arduratzen diren pertsonak edo organoak.
- Langileen ordezkariak.
- Herri Administrazio bakoitzeko organo berezietako Teknikariak, eta gure Autonomia Erkidegoaren kasuan, OSALANgo teknikariak.

#### **Intzidentzia Liburuan oharrak egiteko gomendioak**

##### **Noiz idatzi behar da Intzidentzia Liburuan?**

Garrantzitsua da azpimarratzea, 1627/1997 EDko 14. artikuluan adierazitakoa betez, Segurtasun Koordinatzailea edo Zuzendaritza Fakultatiboko beste edozein pertsona, obrak dirauen bitartean, Segurtasun eta Osasun neurriak betetzen ez direla ohartzen denean, Kontratugileari ohartarazi eta intzidentzia-liburua jaso beharko duela.

Gutxienez, honako ekintza hauek jaso beharko lirateke:

- a) Segurtasun eta Osasun plana edo aurreikusitako segurtasun-neurriak ez direla betetzen ikustean.
- b) Langileen Segurtasun edo Osasunerako arrisku larri edo gertagarriren bat ekar dezaketen egoerak; horrelakorik gertatuz gero, obraren zati bat edo obra osoa geldituko da.

c) Plana edo aurreikusitako neurriak ez betetzearen ondoriozko istripuak.

Obrak dirauen bitarteko Segurtasun Koordinatzaileari gomendatzen zaio, obra bakoitzerako, eta horren ezaugarri, tipologia eta aukeratutako koordinazio-metodologiaren arabera, intzidentzia-liburuan, halabeharrez, jaso behar diren alderdiak bereizteko irizpideak defini ditzala, edozein intzidentzia jasotzea ez bailitzateke ez eraginkorra ezta operatiboa ere.

### **Nola idatzi Intzidentzia Liburuan?**

Intzidentzia nola idazten den garrantzia izan dezakeenez, eta honen inguruan ezer araututa ez badago ere, komenigarria da Intzidentzia Liburuan idatzi beharko diren oharren ezaugarriei buruzko atal berezia eskaintzea.

1. Oharrak irakurgarriak izango dira, eta ez da ezabapen edo zuzenketa egongo; horretarako, aparteko paperean idatziko da oharraren zirriborroa eta, zuzendu ondoren, behin betikoa liburuan jasoko da.
2. Intzidentzia zein egun, leku (ahal bada, krokis bat ere egin daiteke) eta ordutan izan den edo detektatuko den adieraziko da.
3. Intzidentziak eragindako langilearen edo langileen izena eta abizenak, langilea kontratatutako enpresaren edo oharraren eraginpeko enpresaren izena idatziko dira.
4. Ondoren, intzidentzia argi eta zehatz azalduko da, eta erabat ziurrak diren alderdiak idatziko dira, ondoriok edo usteak ekidinez. Denek ulertzeko moduko azalpena izango da, eta ezingo du interpretazio ezberdinak egiteko aukerarik emango. Hobe da krokis argitzaileak erabiltzea, kontaketa neketsu eta zailak idaztea baino.
5. Oharrean, halaber, intzidentzia berriro ez gertatzeko hartu beharreko prebentzio-neurriak, zein intzidentzia konpondu arte hartu beharreko behin-behineko neurriak (beharrezkoak izatekotan) jaso beharko dira; gainera, Koordinatzaileak beharrezkotzat jotz gero, intzidentzia konpontzeko epe bat ezarri ahalko du.
6. Oharra idazten denerako intzidentzia konponduta balego, noiz eta nola konpondu den jasoko da.
7. Oharra idazteko orrialde bat baino gehiago behar izatekotan, orriak zenbatu egin beharko dira.
8. Azkenik, oharra zein egunetan idatzi den eta sinatu egin beharko da, oharra idatzi duen pertsonaren izen-abizenak eta obran duen eginkizuna (Segurtasun Koordinatzailea, Obra-zuzendaria, ordezkari sindikala, etab.) zehaztuz.

### **Zer egin behar da oharra idatzi ondoren?**

1109/2007 EDan erantsitako aldaketaren arabera:

"Ohar bat intzidentzia-liburuan idatzi ondoren, obrak dirauen bitartean Segurtasun eta Osasun Arloko Koordinatzailea denak edo, koordinatzailea izendatzea beharrezkoa ez denean, Zuzendaritza Fakultatiboak, eragindako kontratugileari edo honen langileen ordezkariari jakinarazi beharko die.

Aditutako pertsonen liburu horretan idatzitako ohartarazpen edo aholkuak, zein ondorengo artikulak adierazten duen ustezkoa gertatzekotan, 24ko orduko epean horren kopia bat igarri beharko da Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzara.

Nolanahi ere, aurrez egindako ohartarazpen baten errepikapena izan den, edo ohar berria den zehaztu beharko da".

Horretarako, bera obran ez badago eta intzidentziaren bat gertatuz gero berehala jakinarazteko eskatu ahalko dio Koordinatzaileak Intzidentzia Liburuaz zuzenean arduratutako pertsonari. Modu sinesgarrian helaraziko zaio jakinarazpena Kontratugileari eta langileen ordezkariari, eta horretarako, fotokopia entregatu dela jasoko duen akta edo agiria idatzi ahalko da; bestela, oharra jaso den orrian Kontratugileari eta langileen ordezkariari sinatzeko esango zaie.

Horretarako, enpresaren ordezkariak diren pertsonen eta langileen ordezkarien datu eguneratuen jabe izan beharko da Segurtasun Koordinatzailea. Zerrenda hau, obraren exekuzioan enpresa berri bat hasten den bakoitzean eguneratuko da.

Ikuskaritzari zuzenean aurkeztu ahalko zaio jakinarazpena, honako helbideren batean:

*Bizkaiko Lan eta Gizarte Segurantzako Probintzia Ikuskaritza*

Kale Nagusia, 50

48011 Bilbo

Telefonoa: 94 439 80 16

Telefaxa: 94 441 58 00

**Eposta: [itvizcaya@mtas.es](mailto:itvizcaya@mtas.es)**

*Arabako Lan eta Gizarte Segurantzako Probintzia Ikuskaritza*

Alava Jeneralaren kalea, 10 - 2º

01005 Vitoria-Gasteiz

Telefonoa: 94 514 22 20

Telefaxa: 94 513 58 58

**Eposta: [italava@mtas.es](mailto:italava@mtas.es)**

*Gipuzkoako Lan eta Gizarte Segurantzako Probintzia Ikuskaritza*

Podavines kalea, 1 - 4º

20071 Donostia-San Sebastián

Telefonoa: 94 345 87 00

Telefaxa: 94 346 32 43

**Eposta: [itguipuzcoa@mtas.es](mailto:itguipuzcoa@mtas.es)**

Intzidentzia-liburuko dagokion orria fax edo burofax bidez ere igor daiteke, betiere, Segurtasun Koordinatzailea igorle gisa azaltzen dela egiaztatuz. Kasu honetan, igorri izanaren ziurtagiria gordetzea gomendatzen da.

Liburuaren orrietan obrari buruzko daturik azaltzen ez denez, adierazitako edozein jakinarazpen-mota egiteko, oharrarekin batera intzidentzia-liburuko lehen orriaren kopia bat erantsi beharko da.

#### **4.5.- Azpikontratazioaren Liburua**

Eraikuntza-obra denetan, 1109/2007 EDko 13. artikulua eta ondorengoek araututako Azpikontratazioaren Liburu bana izan beharko dute kontratugileek.

Liburu hau, obran egon beharko da uneoro eta honako alderdi hauek jaso beharko ditu ordena kronologikoan eta lanak hasi zirenetik:

1. Obra jakin batean azpikontratugile eta langile autonomoekin egindako azpikontratazio guztiak.
2. Azpikontratazio-maila eta enpresa komisio-emailea.
3. Zertarako kontratatu den.
4. Azpikontratugile bakoitzaren antolaketa- eta zuzendaritza-lanez arduratzen den pertsona eta, hala badagokio, langileen legezko ordezkariak.
5. Enpresa kontratugile eta langile autonomo bakoitzari dagokion segurtasun- eta osasun-plana zein egunetan aurkeztu den.
6. Segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak, ezarritako koordinazio-prozeduraren dinamika eta garapena zehazteko prestatutako jarraibideak.
7. Zuzendaritza Fakultatiboak salbuespenezko azpikontratazio bakoitza onartzeko idatzitako oharrak.

#### **4.6.- Segurtasun Koordinazioari Buruzko Lehen Bilera**

Obrako Segurtasun eta Osasun Koordinazioaren abiapuntua izango den bilera deitzeko eskatuko dio Koordinatzaileak Sustatzaileari. Lehenengo bilera honetan, une horretan obran esku hartzen ari direnak izango dira: Koordinatzailea, Sustatzailea, Zuzendaritza Fakultatiboa, Kontratugileak, Azpikontratugileak, langile autonomoak.

Bileraren gai-zerrendak honakoak egongo dira:

- 1º Obrako solaskideen zerrenda prestatzea

Obrak egiten hasi baino lehen, obran esku hartuko duten enpresen laneko Segurtasun eta Osasun arloko arduradunak izendatu eta ordezkioak aurreikusi behar dira, hau da, une bakoitzean zein izango den baimendutako pertsona. Ekintza hau burutuko da, Koordinatzaileak jardura bakoitzeko arduradunarekiko etengabeko harremana izan behar duelako, izan ere, baliteke, besteak beste, lan-arloko jarraibideak (Segurtasun eta Osasunaren alorrekoak) finkatu, aldizkako bilerak ezarri, intzidentziak jakinarazi behar izatea. Zerrenda hori, "VII. Eranskina: Obrako solaskideen zerrenda" delakoan jasoko da.

Obraren garrantzi-mailaren arabera, honakoak izango dira solaskide ofizialak:

- Sustatzailea.
- Zuzendaritza Fakultatiboa
- Kontratugileak
- Azpikontratugileak
- Langile autonomoak

"VI. Eranskina: Solaskideen zerrenda" eguneratuta egongo da uneoro.

Gainera, obraren konplexutasunaren arabera, obran esku hartzen duen eragile bakoitzaren eginkizunak eta erantzukizunak azalduko dituen organigrama bat egiteko eskatuko du Koordinatzaileak.

### 2º Asmoen adierazpena eta prebentzio-politika.

Jardueraren hasieran, asmoen adierazpena sinatzea gomendatuko zaio sustatzaileari Horretarako, "XII. eranskina: Asmoen Adierazpena. Prebentzio Politika" delakoa erabili ahalko da.

Enpresa kontratugileei agiri hau beren azpikontratugile eta langile autonomoei helarazi dietela egiaztatzeke eskatuko zaie.

### 3º Koordinazioaren plangintza.

Sustatzaileak, obran prebentzioaren arloan jarraituko diren irizpideak zein, SOPan onartutako neurriak osatzeko edo horiek zehazteko ezarritako eta aldeztu aurretik kontuan izan gabeko neurri guztiak jakinaraziko dizkie eragile guztiei.

Besteak beste, honako puntu hauek barne hartuko dira:

- a. Obrako lanak egiten hasi baino lehen, SOPak onartuta egon behar duela.
- b. Aldeztu aurretiko Abisua Eguneratzeko Irizpideak
- c. Obran langileak, makinak eta enpresak onartzeko irizpideak (lanean hasi baino lehen, langileek, makinek eta enpresek eduki behar duten dokumentazioa).
- d. Enpresak aukeratutako prebentzio-mota zehaztea eta kontratugileek obrarako ezarritako prebentzio-baliabideak zehaztea.
- e. Koordinatzaileak obrara egingo dituen bisiten erregimena (ordutegiak eta bisita-egun finko eta ausazkoak).
- f. Koordinazio-bileren aldizkakotasuna, bertaratzearen ezinbestekotasuna, deialdia egiteko sistema, bileraren lekua, aktak sinatzea, etab.
- g. Obrarako bisitaren txostena betetzea eta Kontratugile orok sinatzea.

- h. Kontratugileak lan-istripu bat egon dela jakinarazteko eta istripua izan duenaren enpresak dagokion ikerketa-txostena egiteko betebeharra.
- i. Intzidentzia liburua eta azpikontratazioaren liburua egon eta erabili beharko dira.
- j. Enpresa kontratugileei, prebentzio-jarduerari buruzko printzipioen LAPLaren 15 artikuluan eta obra egiten ari denean aplikatu beharreko printzipio orokorrei buruzko 1627/1997 EDko 10 artikuluan jasotako helaraziko zaie. Horretarako, "XII. eranskina: Prebentzio-ekintzaren printzipioak eta obra egiten ari den bitartean aplikatu beharreko printzipio orokorrak" deritzon eranskina erabili beharko da. Honako hau, kontratugile guztiek jaso eta sinatu beharko dute. Enpresa kontratugileei adierazitako eranskina beren azpikontratugile eta langile autonomoei helarazi dietela egiaztatzeko eskatuko zaie.

Jarduera hauen bitartez, 1627/1997 EDko 9. artikuluko a), b), d) eta f) atalen ondoriozko eginbeharrak betetzeko oinarriak ezarri ahal izango ditugu:

- 1627/1997 EDko 9. artikuluko a) atala: "Prebentzio eta segurtasunari buruzko printzipio orokorren aplikazioa koordinatzea".
- 1627/1997 EDko 9. artikuluko b) atala: "Obrako jarduerak koordinatzea, kontratugileek eta, hala badagokio, azpikontratugileek eta langile autonomoek, obra eta bereziki, 1627/1997 EDko 10. artikulua aipatzen dituen lan edo jarduerak, burutzen dituzten bitartean, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 15 artikuluan jasotako prebentzio-ekintzaren printzipioak koherentziaz eta erantzukizunez aplikatzen direla bermatzeko".
- 1627/1997 EDko 9. artikuluko d) atala: "LAPLaren 24 artikuluan aurreikusitako enpresa-jardueren koordinazioa antolatzea".
- 1627/1997 EDko 9. artikuluko f) atala: "Obran, bakar-bakarrik baimena duten pertsonak sartzeko behar beste neurri hartzea".

Bilerari buruzko dagokion akta egin eta sinatuko da. Honetan, jorratutako gaiak, iruzkinak eta ondorioak jaso beharko dira.

Jarduera hauen ondorioz, honako agiri hauek sortuko dira:

- II. eranskina: Obrako dokumentazioa kontrolatzeko laukia.
- IV. eranskina: Obrarako sarbidea kontrolatzeko neurriak.
- V. eranskina: Lehen Bileraren Akta.
- VI. eranskina: Obran esku hartzen dutenen zerrenda.
- XII. eranskina: Asmoen Adierazpena. Prebentzio Politika.
- XIII. eranskina: Prebentzio-ekintzaren printzipioak eta obra egiten ari den bitartean aplikatu beharreko printzipio orokorrak.

#### 4.7.- Obrarako Sarbidea Kontrolatzeko Neurriak

Segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak behar beste neurri hartu beharko ditu, obran baimena duten pertsonak baino ez sartzeko.

Horretarako, jarraibideak ezarriko dizkie enpresa kontratugileei, obran ezarritako baldintzak betetzen duten pertsonari bakarrik baimentzeko. Beraz, obrako langileen eta obran sar daitezkeen bestelako pertsonen (teknikariak, hornitzaileak, bisitak, etab.) artean bereizi beharko da.

Obrako langileen sarbideari dagokionez, enpresa kontratugileek kontrolatu beharko dute bere langileen, zein azpikontratututako enpresa eta langile autonomoen sarrera.

Beraz, Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileari gomendatzen zaio, kontratugile bakoitzari eska diezaiola, langileen obrarako sarbidea kontrolatzeko sistema bat ezar dezala, eta horretarako, baimenak, ziurtapenak edo erraz eta eraginkortasunez aplikatzeko moduko beste edozein formula erabil ditzala. Kontratugileek ez liekete obran sartzan utzi beharko, honako baldintza hauek betetzen ez dituzten langileek:

- Langilea honakoak adieraziz identifikatzea: izen-abizenak, NANA, maila profesionala eta kontratatu duen enpresa.
- Langileak azterketa medikoak gainditu duela egiaztatzeko agiria aurkeztea.
- Langileak burutuko den obraren inguruko arrisku eta prebentzio-neurriari buruzko informazioa jaso duela eta langileak jasotako prestakuntza egiaztatzen duten agiriak aurkeztea.
- Langileak bere lana normaltasunez garatzeko beharrezkoak diren norberaren babeserako ekipoak jaso dituela egiaztatzen duen agiria aurkeztea.
- Obrara sar daitezkeen bestelako pertsonen artean, honako hauek bereiztuko ditugu:
  - a) hornitzaileak,
  - b) obraren inguruko teknikariak eta pertsonak,
  - c) bisitariak.

Hornitzaileak (hormigoia, adreiluak, tutuak, etab.) obran sartu ahalko dira, enkargatu zaien materiala edo merkantzia entregatzera. Horretarako, kontratugileak behar beste arau emango ditu, ibilgailuen joan etorrietarako eta zamaketa-lanetarako egokitutako eremuetara baino ez sartzeko eta, betiere, norberaren babeserako ekipo egokiez jantzita sartzeko.

Sustatzaileak, Zuzendaritza Fakultatiboak eta eraikuntza-enpresetako arduradunak, obraren exekuzio eta zuzendaritzako esku-hartzaile diren heinean, obran sartu behar dira, baina horretarako, eska daitezkeen norberaren babeserako ekipoak (kaskoa, segurtasunezko oinetakoak, arnasketa eta/edo entzumena babestekoa, beharrekoe balitz) jantzi beharko dituzte. Obra ezagutzen dutenez, eraikuntza-obra bakoitzari dagozkion prebentzio-neurriak betez ibili ahalko dira obran zehar, baina, betiere, honako hauetatik ibiltzean arreta berezia izanik: hondeaketan eta/edo forjatuen ertzetatik gertu, eskaileretatik edo hutsuneetatik gertu, etab.

Bisitariari dagokienez, berriz, Sustatzaileak, obraren jabe gisa, obrarekin zerikusirik izan gabe bertan sartuko den edozein pertsonaren sarrera baimendu beharko luke, Administrazioaren edo hari atxikitako bestelako erakundeen ordezkariak ez badira, behintzat. Halaber, pertsona horiek norberaren babeserako beharrezko ekipoa daramatela eta horretarako izendatutako pertsonarekin doazela egiaztatu beharko du.

Sarbidea kontrolatzeko neurriak betetzen direla bermatzeko, sarbidearen kontrolaz arduratuko den pertsona izendatzeko eskatuko dio Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak kontratugileari. Arduradun hori, egunero obran sartu diren pertsonen zerrenda eguneratuaren jabe izan beharko da, uneoro.

Gainera, obra behar bezala hesitu eta itxita egoteko neurriak ere hartuko dira; hau ezinezkoa balitz, gutxienez perimetroa mugatuko da. Obra ireki eta itxeko ordutegi bat ezarriko da eta, jardunaldiaren amaiera obra itxita gelditu dela egiaztatu beharko du sarbidez arduratzen denak. .

Halaber, Segurtasun eta Osasun Planean aurreikusitako segurtasunezko seinaleak eta oharrak ere jarriko dira.

Obran, aldi berean, kontratugile batek baino gehiagok esku hartzen badute, Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak prebentzio-teknikariak eta sarbideak kontrolatzen dituzten arduradunak elkarrekin biltzearen alde egingo du, horrela, irizpideak batu eta goragoko ataletan adierazitako kontrol-eginkizunak banatzeko, neurri horietako bat ere bete gabe gera ez dadin.

Jarduera hauen bitartez, 1627/1997 EDko 9. artikuluko f) atalaren ondoriozko eginbeharrak betetzeko oinarriak ezarri ahal izango ditugu:

- 1627/1997 EDko 9 artikuluko f) atala: "Obran, bakar-bakarrik baimena duten pertsonak sartzeko behar beste neurri hartzea".

Jarduera hauen ondorioz, honako agiri hau sortuko da:

- IV. eranskina: obrarako sarbidea kontrolatzeko neurriak.

#### **4.8.- Enpresa, Langile eta Makineriari Buruzko Obrako Dokumentazioa Gainbegiratzea**

Obran ari diren langileak eta erabiltzen diren makinak eta ibilgailuak ezagutzeko aukera izan beharko du segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak uneoro.

Enpresa kontratugileak dira, bere enpresak eta bere menpe diharduten langileak, zein azpikontratutakoak eta autonomoak, eta horretan erabilitako makinak eta ibilgailuak kontrolatu beharko dituztenak.

Esku hartzen duten azpikontratugile eta langile autonomoei dagokienez, kontratugileak eguneratuta izango ditu beti, Azpikontratazioaren Liburuan jasotako datuak.



Gutxienez, honako agiri hauek bereganatzea gomendatzen zaie kontratugileei:

- Enpresa azpikontratugileei eta langile autonomoei, kontratugilearen Segurtasun eta Osasun Plana helaraziko die, aztertu eta bete dezaten edo proposamen alternatiboak aurkez ditzaten. Neurri alternatiboen honetan, segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak sinatu beharko ditu, eraginpeko lanak hasi baino lehen.
- Esku hartzen duen enpresa bakoitzak prebentzioaren inguruan aukeratutako antolamendua adieraztea eta, hala balegokio, kanpoko prebentzio-zerbitzua jakinaraztea.
- Egotekotan, kontratugile eta/edo azpikontratugileen prebentzio-zerbitzuak identifikatzea.

Obrako honako hau da, langileen inguruan kontratugileek izan behar duten gutxieneko dokumentazioa:

- Bere eta azpikontratugileen langileen eta langile autonomoen zerrenda, honako hau adieraziz: izen-abizenak, NANA, maila profesionala eta kontratatu duen enpresa.
- Langileek azterketa medikoak gainditu dutela egiaztatzen duen agiri bana.
- Langile bakoitzak Segurtasun eta Osasun Planean (Larrialdietako Plana barne) bildutako arrisku eta prebentzio-neurriei buruzko informazioa jaso duela egiaztatzen duen agiria edo, hala badagokio, ziurtagiria eta, langile bakoitzak bere lanpostuari buruzko prestakuntza jaso duela egiaztatzen duen agiria edo, hala badagokio, ziurtagiria (lanbide-txartela).
- Langileak bere lana normaltasunez garatzeko beharrezkoak diren norberaren babeserako ekipoak jaso dituela egiaztatzen duen agiria.
- Makinak edo lan-ekipoak erabiltzeko baimena duten langileen zerrenda, langileak eta bakoitzak erabili ahal duen makinak zehaztuz.
- Lan bereziak (altueran, eremu itxiak, material arriskutsuak, tentsiopeko lanak, etab.) egiteko baimena duten langileen zerrenda.

Obran erabiliko diren makina eta lan-ekipoak direla-eta, honakoa da gutxienez izan beharko den dokumentazioa:

- Erabiltzen den makinaren jabetza ziurtatzen duen dokumentazioa edo titulua.
- Makina eta lan-ekipoen zerrenda, mota, modeloa eta matrikula edo serie zenbakia adieraziz.
- Adostasun Agiria EE, jarraibideen eta muntaketa, instalazio eta erabilerari buruzko liburua, mantentzearen gaineko dokumentazioa, etab.
- Makinek 1215 EDaren arabekoak izatea.
- Udalaren, eta hala badagokio, industriaren baimenak
- Dorre garabia instalatzeko proiektua eta ziurtagiria, abian jartzeko orria, mantentzearen gaineko liburua eta garabilari-txartela barne hartzen dela.

- Tutu-aldamio, sarbide-dorre, lanerako dorre mugikor, masta gaineko aldamio elektriko eta abarrei buruzko 2177/2004 Errege Dekretua betetzen dela ziurtatzen duen dokumentazioa.

Segurtasun- eta osasun-koordinatzaileari dagokio enpresa kontratugileek entregatutako dokumentazioa ikuskatzea; horretarako, bertan jasotakoa egiaztatu eta eska daitekeen guztia azaltzen den alderatu beharko edo, bestela, falta dena eransteko edo eguneratzeko eskatu behar zaiola.

Kontrol honetarako, kontratugileak berezko eredurik ez balu, II. Eranskina: Obrako dokumentazioa kontrolatzeko laukia eman ahal zaio.

Jarduera hauen bitartez, 1627/1997 EDko 9. artikuluko d) atalaren ondoriozko eginbeharrak betetzeko oinarriak ezarri ahal izango ditugu:

- 1627/1997 EDko 9. artikuluko d) atala: "LAPLaren 24 artikuluan aurreikusitako enpresa-jardueren koordinazioa antolatzea".

Jarduera hauetatik, honako agiri hau ondorioztatzen da:

- II. eranskina: Obrako dokumentazioa kontrolatzeko laukia.

#### **4.9.- Segurtasun Koordinazioari Buruzko Aldizkako Bilerak**

Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak aldizkako koordinazio-bilerak egin ahalko ditu.

Bilera honetako ondorioak, bertaratutakoek sinatutako akta batean jasoko dira, hau da, "IX. eranskina: Koordinazio Bileraren Akta" deritzonean.

Bilera hauetan, honako gai hauek jorratuko dira:

1º Bilerara bertaratutakoen identifikazioa eta sinadura.

Obran esku hartzen duten enpresetako Segurtasun eta Osasun arloko arduradunen zerrenda eguneratuko da, hots, "VI. Eranskina: Obran esku hartzen duten enpresetako solaskideen zerrenda" deritzona.

Enpresan esku hartuko duten enpresek entregatu beharreko dokumentazioaren inguruko gaiak, hala nola: enpresen zerrenda eta langileen zerrenda (izen-abizenak, NANA, maila profesionala eta guztiz, eta NBE entregatu zaiola eta, besteak beste, jasotako prestakuntza eta informazioari buruzko, azterketa medikoa gainditu izanaren eta makinak erabiltzeko baimenaren gaineko egiaztagiria). Obrarako sarbidearen inguruan, enpresek obran esku hartu ahal izateko aurkezten duten dokumentazioa, hots: Segurtasun eta Osasun Plana, enpresan aukeratutako prebentzio-mota, prebentzio-baliabideen identifikazioa, etab.

Enpresa berriei, obran enpresak, langileak eta makinak onartzeko irizpideak gogoraraziko zaizkie. Enpresa Kontratugileek jarraituko dute kontrolaz arduratzen eta Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak gainbegiratu ahalko du.

Obran lanean hasten diren enpresa Kontratugile berriei, prebentzio-jarduerari buruzko printzipioen LAPLaren 15 artikuluan eta obra egiten ari denean aplikatu beharreko printzipio orokorrei buruzko 1627/1997 EDko 10 artikuluan jasotako helaraziko zaie. Horretarako, "XVI. eranskina: Prebentzio-ekintzaren printzipioak eta obra egiten den bitartean aplikatu beharreko printzipio orokorrak" deritzona erabiliko da.

Enpresa kontratugileei printzipio hauek beren azpikontratugile eta langile autonomoei helarazi dizkietela egiaztatzen eskatuko zaie.

## 2º Lanak zein segurtasun-baldintzatan garatu behar diren

Bilerara bertaratutakoek, obrako fasearen inguruan Segurtasun eta Osasun Planean jasotako prebentzio-alderdiak komentatuko dituzte.

Kontratugileekin batera, honako hauek aztertuko dira: obraren konponbide teknikoak, lanaren antolamendua eta lanen iraupena.

LAPLaren 15. artikulua eta 1627/1997 EDko 10. artikulua aplikatzerakoan kezka edo kontraesanak daudenean, elkarrekin koordinatuz erabakiak hartuko dira.

Esku hartzen duten enpresekin, lan-metodoak behar bezala aplikatzeko ezartzen diren kontrol-mekanismoak aztertu, eta beharrezkoak diren egokitzapenak proposatuko dira. Kontrol-metodo horiek behar bezala aplikatzen direla egiaztatuko da.

Lan-metodoetan aldaketa garrantzitsuak eman behar direnean, jakinaren gainean jarriko dute Kontratugileek Koordinatzailea.

## 3º Obran gertatutako istripuen gaineko iruzkinak.

Aurreko bileratik gertatutako istripuak, horien eragileak eta berriro ez gertatzeko hartutako prebentzio-neurriak aztertuko dira, beharrezkoa balitz, Segurtasun eta Osasun Plana egokituz.

## 4º Hurrengo bilerara arte burutu beharreko lanen aurreikuspena.

Kontratugile bakoitzaren arduradunak, hurrengo bilera arteko denbora-tarterako egitea aurreikusi dituen lanak zerrendatuko ditu, lanak hasi baino lehen, obran esku hartzen duten enpresek sor litezkeen elkarrekin aztertu eta beharrezko jarraibideak bideratu ahal izateko. Koordinatzaileak, lan haiek egiterakoan hartu beharreko eta Segurtasun eta Osasun Planean jasotako prebentzio-neurriak gogoraraziko ditu.

## 5º Hurrengo bileraren eguna jartzea.

Bilera amaitzean, hurrengo zein egunetan, zein ordutan eta zein lekutan egingo den finkatuko da. Gorago azaldu denez, Segurtasun Koordinatzaileak ezarritako aldizkakotasunarekin egiten dira bilerak.

Jarduera hauen bitartez, 1627/1997 EDko 9. artikuluko a), b) eta d), e) eta f) atalen ondoriozko eginbeharrak betetzeko oinarriak ezarri ahal izango dira:

- a) Prebentzio eta segurtasuneko printzipio orokorren aplikazioa koordinatzea:
  - 1º Teknika- eta antolakuntza-arloko erabakiak hartzerakoan, aldi berean edo elkarren segidan garatuko diren lan ezberdinen edo lan-fase ezberdinen plangintza egiteko helburuarekin.
  - 2º Lan edo lan-fase ezberdin hauek egiteko behar izango den denbora balioestean.
- b) Obrako jarduerak koordinatzea, kontratugileek eta, hala badagokio, azpikontratugileek eta langile autonomoek, obra eta bereziki, 1627/1997 EDko 10. artikulua aipatzen dituen lan edo jarduerak, burutzen dituzten bitartean, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 15 artikuluan jasotako prebentzio-ekintzaren printzipioak koherentziaz eta erantzukizunez aplikatzen direla bermatzeko.
- d) Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikuluan aurreikusitako enpresa-jardueren koordinazioa antolatzea.
- e) Lan-metodoak behar bezala aplikatzen direla kontrolatzeko ekintzak eta eginkizunak koordinatzea.
- f) Obran, bakar-bakarrik baimena duten pertsonak sartzeko moduko neurriak hartzea. Zuzendaritza Fakultatiboa arduratuko da eginkizun honetaz, koordinatzailea izendatu behar ez denean.

Jarduera hauetatik, honako agiri hauek ondorioztatzen dira:

- VI. eranskina: Obran esku hartzen duten enpresetako solaskideen zerrenda.
- IX. eranskina: Koordinazio-bilerari buruzko akta.
- XIII. eranskina: Prebentzio-ekintzaren printzipioak eta obra egiten ari den bitartean aplikatu beharreko printzipio orokorrak.

#### **4.10. Informazioa Zuzendaritza Fakultatiboari eta Sustatzaileari Jakinaraztea**

Zuzendaritza Fakultatiboak eta Sustatzaileak aldizkako koordinazio-bileretara joango ez balira, haietan jorratutako gaien berri ematea komeni da. Horretarako, hainbat metodo erabili ahal izango dira:

- Bileretan sortutako dokumentazio dena Zuzendaritza Fakultatiboari eta/edo Sustatzaileari helaraztea.
- Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak beharrezkotzat edo egokitzen jotzen duenean, aldizkako lan-bilerak edo lan-bilera puntualak izatea.
- Koordinatzaileak beharrezkotzat joz gero, Zuzendaritza Fakultatiboarekin eta/edo Sustatzailearekin batera aldizkako txostenak (esaterako, hilero) edo txosten zehatzak egitea.

Jarduera hauen bitartez, honakoak egiten dira:

- a) Zuzendaritza Fakultatiboarekin, prebentzioaren inguruko printzipio orokorrak aplikatzeko konponbide teknikoak, antolamendua eta lanen iraupena koordinatzen da.
- b) Obrara egindako bisitan sarrien antzemandako akatsak azaltzen dira.
- c) Exekuzio-proiektuan / segurtasun-azterlanean / segurtasun-planean edo obrako aldakei buruz behar bezala aztertu ez diren alderdiei buruzko erabakiak hartzen dira.

Horretarako, "Hileroko txostena" egitea komeni da, eta horretan, hile horretan Segurtasun Koordinatzaileak burututako jarduerak laburbilduko dira, hau da: hilean zehar egindako lanak, dokumentazioaren kontrola, lanak zein baldintzatan garatu diren kontrolatzea, obran izandako istripuen azterketa, Segurtasun eta Osasun Planeko partiden ziurtapenak egiaztatzea (hala balegokio), etab..

Halaber, ezohiko baldintzaren baten inguruko "Txosten bereziak" ere egin daitezke, eta horietan, Koordinatzaileak horren inguruan burutu dituen ekintzak guztiak eta berori zuzentzeko proposatutakoa jasoko dira.

Honela, 1627/1997 EDko 9 artikuluko a) atalean jasotako eginbeharrak beteko dira, hots: "Prebentzio eta segurtasunari buruzko printzipio orokorren aplikazioa koordinatzea".

Jarduera hauetatik, honako agiri hauek ondorioztatzen dira:

- Aldizkako txostena
- Ezohiko baldintza bati buruzko txosten berezia.

#### **4.11. Obrarako Segurtasuneko Bisitak**

Besteak beste, Segurtasun eta Osasun Planetan aurreikusitako segurtasun-neurriak behar bezala ezarri diren, eta obran esku hartzen duten kontratugileek bere agindupeko azpikontratugile, langileen eta makinaren kudeaketa oegokia den kontrolatzea da bisita hauen helburua.

Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak ezarritako bisitak eta, bere aburuz, egin behar dituenak egingo ditu Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak.

Komenigarria litzateke, aldizka, Zuzendaritza Fakultatiboarekin batera bisitak egitea, informazioa zuzen-zuzenean helarazteko edo hainbat gairi buruzko erabakiak tokian bertan hartzeko.

Obrarako bisitan zehar, honako alderdi hauek kontrolatuko ditu Segurtasun Koordinatzaileak:

- Obrako instalazioak
- Bitarteko baliabideak, osasun zerbitzuak eta zerbitzu orokorrak
- Babesteko baliabideen, norberaren eta taldeko babes-ekipoen baldintzak.
- Material-bilketak
- Makina, lanabes eta erreminten arauak

- Txukuntasuna eta garbitasuna.
- Itxiturak, hesiaren egoera eta obraren mugaketa.
- Obrarako sarbide-sistemaren jarraipena
- Lan-metodoak behar bezala aplikatzen direla egiaztatzea.
- Tarteko zerbitzuen tratamendua
- Langileari helarazitako prestakuntza eta informazioa
- Enpresa berriak.

Horretarako, "VIII. eranskina: Obrarako bisitetako Kontrol Puntuak. deritzona erabili ahalko da.

Jarduera hauen bitartez, 1627/1997 EDko 9. artikuluko a), b) eta d), e) eta f) atalen ondoriozko eginbeharrak betetzeko oinarriak ezarri ahal izango dira:

- a) Prebentzio eta segurtasuneko printzipio orokorren aplikazioa koordinatzea:
  - 1.a. Teknika- eta antolakuntza-arloko erabakiak hartzerakoan, aldi berean edo elkarren segidan garatuko diren lan ezberdinen edo lan-fase ezberdinen plangintza egiteko helburuarekin.
  - 2.a. Lan edo lan-fase ezberdin hauek egiteko behar izango den denbora balioestean.
- b) Obrako jarduerak koordinatzea, kontratugileek eta, hala badagokio, azpikontratugileek eta langile autonomoek, obra eta bereziki, 1627/1997 EDko 10. artikulua aipatzen dituen lan edo jarduerak, burutzen dituzten bitartean, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 15 artikuluan jasotako prebentzio-ekintzaren printzipioak koherentziaz eta erantzukizunez aplikatzen direla bermatzeko.
- d) Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikuluan aurreikusitako enpresa-jardueren koordinazioa antolatzea.
- e) Lan-metodoak behar bezala aplikatzen direla kontrolatzeko ekintzak eta eginkizunak koordinatzea.
- f) Obran, bakar-bakarrik baimena duten pertsonak sartzeko moduko neurriak hartzea. Zuzendaritza Fakultatiboa arduratuko da eginkizun honetaz, koordinatzailea izendatu behar ez denean.

Jarduera hauetatik, honako agiri hauek ondorioztatzen dira:

- VIII. eranskina: Obrarako bisitetako kontrol-puntuak.
- XIII. eranskina: Prebentzio-ekintzaren printzipioak eta obra egiten ari den bitartean aplikatu beharreko printzipio orokorrak.

#### **4.12. Istripuak Ikertzen Laguntzea**

Istripua izan duen langilea kontratatu duen enpresek ikertuko dituzte istripuak. Hala ere, Koordinatzaileak ikerketa-lanetan esku hartu ahalko du, eta berez, obran arazoak edo istripuak sor ditzakeen edozein jazoeraren berri emango dio Kontratugileak Koordinatzaileari.

Istripu bat gertatzekotan, enpresak horren eragileak aztertu beharko ditu, ahalik eta informazio gehien bilduz eta jatorria zehatz-mehatz dokumentatuz, eta ondoren, hala badagokio, Segurtasun Planari erantsiko zaio, berriro gerta ez dadin. Horretarako, istripuaren txostenean honakoak biltzea gomendatzen da:

- Argazkiak
- Istripua izan duenaren dokumentazioa (honakoak egiaztatzeko agiriak: NBEak ematearena, arriskuen inguruko prestakuntza eta informazioa, azterketa medikoa, beharrezkoa balitz, makinak erabiltzeko baimena, etab.) eta istripua izan duen langilea kontratatu duen enpresarena.
- Gertaeren azalpena
- Istripua izan duten pertsonen identifikazioa, dagozkion egitekoak eta jasotako aginduak zehaztuz.
- Obraren tokia.
- Eguna eta ordua. Lekukoak
- Istripuaren eragileak eta neurri zuzentzaileak
- Erabilitako makinak eta/edo erremintak
- Norberaren babeserako elementuak, Babes kolektiboak
- Jasotako prestakuntza eta informazioa
- Segurtasun Planaren azterketa
- Gainera, eredu ofizialaren arabera istripu-agiria beteko da.

Ondorioak. Neurri zuzentzaileak.

- Hartu beharreko neurriak, horien kudeaketa
- Plana aldatzea, egoki balitz.
- XI. eranskina: barne-txostena, istripua gertatzekotan.

#### **4.13. Koordinazioaren Amaiera**

Oro har, segurtasun- eta osasun-koordinazioaren amaiera ematen da obra amaitzen denean, baina segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak karguari uko egiten duenean edo kontratua deuseztatzen duenean edo zaionean ere gerta daiteke.

Obra bat amaitutzat jotzen da, Zuzendaritza Fakultatiboak Obra Amaierako Ziurtagiria egiten duenean edo Obra Onarpenaren Akta sinatzen denean.

Kasu bietan, segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak Koordinazio Amaieraren Akta egin, eta sustatzaileak eta berorrek sinatu beharko dute. Akta honek dagokion elkargoaren ikus-onetsia eramatea komeni da. Horretarako, "XIV. eranskina: Koordinazio Amaieraren Akta" delakoa erabili ahal da.

Jarduera hauen ondorioz, honako agiri hau sortuko da:

- XIV. eranskina: Koordinazio Amaieraren Akta.

#### 4.14. Eginkizun eta Betebeharren Laburpen Laukia

### Obrako Segurtasun Koordinatzailearen Eginkizunak Bete Ahal Izateko Beharrezkoak Diren Eginkizun, Zeregin, Baliabide eta Agiriaren Zerrenda

EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK Zer	ZEREGINAK Nola	BALIABIDEAK Zertaz	DOKUMENTAZIOA
<p>a) Prebentzio eta segurtasuneko printzipio orokorren aplikazioa koordinatzea:</p> <p>1º Teknika- eta antolakuntza-erloko erabakiak hartzerakoan, aldi berean edo elkarren segidan garatuko diren lan ezberdinen edo lan-fase ezberdinen plangintza egiteko helburuarekin.</p> <p>2º Lan edo lan-fase ezberdin hauek egiteko behar izango den denbora balioestean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Obraren Exekuzio Proiektua, Segurtasun eta Osasun Azterlana eta Segurtasun eta Osasun Plana aztertzea.</li> <li>Kontratugileekin batera irtenbide teknikoak eta lanaren antolaketa aztertzea.</li> <li>Kontratugileekin lanen iraupena aztertzea.</li> <li>Zuzendaritza Fakultatiboko gainerakoekin konponbide teknikoak, antolamendua eta lanen iraupena aztertzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Exekuzio Proiektua.</li> <li>Segurtasun eta Osasun Azterlana.</li> <li>Segurtasun eta Osasun Planak eta horien eranskinak.</li> <li>Segurtasun-koordinazioaren lehen bilera.</li> <li>Segurtasun-koordinazioaren aldizkako bilera.</li> <li>Obrarako segurtasun-bisitak.</li> </ul>	<p>Aktak, egiaztagiria, erregistroak, etab.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Segurtasun-koordinazioaren lehen bilera aktak.</li> <li>Segurtasun-koordinazioaren aldizkako bilera aktak.</li> <li>Obrarako segurtasun-bisitaren aktak.</li> </ul>
<p>b) Obrako jarduerak koordinatzea, kontratugileek eta, hala badagokio, azpikontratugileek eta langile autonomoek, obra eta bereziki, 1627/1997 EDko 10. artikulua alpatzen dituen lan edo jarduerak, burutzen dituzten bitartean, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 15. artikuluan jasotako prebentzio-ekintzaren printzipioak koherentziaz eta erantzukizunez aplikatzen direla bermatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Enpresa kontratugileei LAPLaren 15. artikuluko edukia jakinaraztea (Prebentzio-ekintzaren printzipioak).</li> <li>Enpresa kontratugileei, 1627/1997 EDko 10. artikulua adierazten dituen eginkizunen berri ematea.</li> <li>Enpresa kontratugileei agiri hau beren azpikontratugile eta langile autonomoiei helarazi dietela egiaztatzeko eskatuko zate.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Segurtasun-koordinazioaren lehen bilera.</li> <li>Segurtasun-koordinazioaren aldizkako bilera.</li> <li>Obrarako segurtasun-bisitak.</li> <li>K o n t r a t u g i l e e k , azpikontratugileek eta langile autonomoek obran sartzean aurkeztu behar duten agiriaren zerrenda.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Segurtasun-koordinazioaren lehen bilera aktak.</li> <li>Segurtasun-koordinazioaren aldizkako bilera aktak.</li> <li>Obrarako segurtasun-bisitaren aktak.</li> <li>Eskatutako dokumentuak entregatu izanaren ziurtagiriak.</li> </ul>



EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK Zer	ZEREGINAK Nola	BALIABIDEAK Zertaz	DOKUMENTAZIOA Aktak, egiaziagiariak, erregistroak, etab.
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontratugileei, obran jarduten hasten direnei enpresa berriek bete behar dituzten eginkizunak zehaztea.</li> <li>• Kontratugileei, eta hauek azpikontratugileei eta langile autonomoei, obran hastean bete behar diren baldintzak egiaztatzeko eskatzea.</li> <li>• LAPLaren 15. artikulua edo 1627/1997 EDko 10. artikulua aplikatzerakoan kezkak edo kontraesanak daudenean, erabakiak hartzeko jarduerak koordinatzea.</li> </ul>		
<p>c) Kontratugileak prestatutako Segurtasun eta Osasun Plana eta, hala badagokio, horri erantsitako aldaketak onartzea. 1627/1997 EDaren 2. 7 artikuluko 2. ataleko azken paragrafoan ezarritakoari jarraiki, Zuzendaritza Fakultatiboa arduratuko eginkizun honetaz, koordinatzaileak izendatzea beharrezkoa ez denean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Exekuzio Proiektua aztertzea.</li> <li>• Segurtasun eta Osasun Azterlana aztertzea.</li> <li>• Segurtasun eta Osasun Plana eta litezkeen aldaketak aztertzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Exekuzio Proiektua.</li> <li>• Segurtasun eta Osasun Azterlana.</li> <li>• Segurtasun eta Osasun Plana.</li> <li>• Segurtasun eta Osasun Plana onartzeko kontrol-zerrenda (** Eranskina).</li> <li>• Segurtasun eta Osasun Planaren eranskinak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• SegurtzFn eta Osasun Planaren onarpenari buruzko akta.</li> <li>• Segurtasun eta Osasun Plana onartzeko txostena (Administrazioren obretarako).</li> <li>• SOParen eranskinak onartzeko aktak.</li> <li>• SOParen eranskinak onartzeko aldeko txostenak.</li> </ul>

EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK Zer	ZEREGINAK Nola	BALIABIDEAK Zertaz	DOKUMENTAZIOA Aktak, egiaztagiariak, erregistroak, etab.
d) Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikuluan aurreikusitako enpresa-jardueren koordinazioa antolatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jarduera bakoitza abiarazi aurretik, esku hartuko duten kontratugileekin litezkeen elkarreaginak aztertu eta beharrezko jarraibideak ezartzea.</li> <li>Sustatzaileari gogoraraztea, Segurtasun eta Osasun Azterlanean jasotako informazioa obran jardungo den enpresa kontratugile bakoitzari helarazi behar diola.</li> <li>Kontratugileei gogoraraztea, informazioak bere azpikontratugileei eta langile autonomoei helarazi behar dizkiela.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Segurtasun-koordinazioko lehen bilera.</li> <li>Segurtasun-koordinazioko aldizkako bilera.</li> <li>Obrarako segurtasun-bisitak.</li> <li>Segurtasun eta Osasun Planak eta horien eranskinak.</li> <li>Istripuen inguruko ikerlanen emaitzak, egotekotan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Segurtasun-koordinazioko lehen bilaren akta.</li> <li>Segurtasun-koordinazioko aldizkako bileren akta.</li> <li>Obrarako segurtasun-bisiten aktak.</li> <li>K o n t r a t u g i l e e k azpikontratugileei eta langile autonomoei informazioa helarazi dietela egiaztatzeko agiriak.</li> <li>Azpikontratugileek eta langile autonomiek kontratugilearen Segurtasun Plana beteko dutela onartzea.</li> </ul>
e) Lan-metodoak behar bezala aplikatzen direla kontrolatzeko ekintzak eta eginkizunak koordinatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Esku hartuko duten enprekin lana kontrolatzeko duten metodoak eta behar diren egokitzapenak proposatzea.</li> <li>Kontrol-metodo horiek behar bezala aplikatzen direla egiaztatzea.</li> <li>Kontratugileei, lan-metodoetan ematen diren aldaketa garrantzitsuak segurtasun- eta osasun-koordinatzaileari helarazteko eskatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Segurtasun-koordinazioko lehen bilera.</li> <li>Segurtasun-koordinazioko aldizkako bilera.</li> <li>Obrarako segurtasun-bisitak.</li> <li>Prebentzio-baliabideak.</li> <li>Prebentzio-zerbitzuak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Segurtasun-koordinazioko lehen bilaren akta.</li> <li>Segurtasun-koordinazioko aldizkako bileren akta.</li> <li>Obrarako segurtasun-bisiten aktak.</li> <li>Prebentzio-baliabideak izendatzea.</li> </ul>

<b>EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK</b> Zer	<b>ZEREGINAK</b> Nola	<b>BALIABIDEAK</b> Zertaz	<b>DOKUMENTAZIOA</b> Aktak, egiaztagiriak, erregistroak, etab.
f) Obran, bakar-bakarrrik baimena duten pertsonak sartzeko moduko neurriak hartzea. Zuzendaritza Fakultatiboa arduratuko da eginkizun honetaz, koordinatzailea izendatu behar ez denean.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresa obrarako kontratugileei sarbidea kontrolatzeko gutxieneko irizpideen berri ematea.</li> <li>• Kontratugile nagusiari edo, egon ezean, enpresa nagusiari, obrarako sarbidea kontrolatzeko prozedura aurkezteko eskatzea.</li> <li>• Obrarako sarbidearen prozedurak betetzen direla egiaztatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sarbideak kontrolatzeko prozedura (V. Eranskina).</li> <li>• Segurtasun-koordinazioko lehen bilera.</li> <li>• Segurtasun-koordinazioko aldizkako bilera.</li> <li>• Obrarako segurtasun-bisitak.</li> <li>• Obran sartzen diren langile eta ibilgailuen aldizkako zerrendak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Segurtasun-koordinazioko lehen bileraren akta.</li> <li>• Segurtasun-koordinazioko aldizkako bileren akta.</li> <li>• Obrarako segurtasun-bisiten aktak.</li> </ul>

## 5. ERANSKINAK

- I. eranskina.** Obra egin bitarteko Segurtasun eta Osasun Koordinatzailea izendatzeko akta
- II. eranskina.** Obrako dokumentazioaren kontrol-laukia
- III. eranskina.** Aldez aurretiko abisua
- IV. eranskina.** Obrarako sarbidea kontrolatzeko neurriak
- V. eranskina.** Segurtasun- eta osasun-koordinazioko lehen bileraren akta
- VI. eranskina.** Obran esku hartzen duten enpresatako solaskideen zerrenda
- VII A eranskina.** Segurtasun eta Osasun Plana onartzeko akta
- VII B eranskina.** Administrazioarentzako aldez aurretiko txostena
- VIII. eranskina.** Obretako kontrol-puntuak
- IX. eranskina.** Segurtasun eta Osasun koordinazioko bileren aktak
- X. eranskina.** SOA – SOParen azterketa
- XI. eranskina.** Barne-txostena, istripua gertatzekotan
- XII. eranskina.** Asmoen Adierazpena. Prebentzio Politika
- XIII. eranskina.** Prebentzio-ekintzaren printzipioak
- IVX. eranskina.** Koordinazio-amaieraren akta
- VX. eranskina.** Eskaintza eta kontratua



I. ERANSKINA

DATA / /

**OBRA EGIN BITARTEKO SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILEA  
IZENDATZEKO AKTA**

**OBRAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Obra:  
Kokapena:  
Udalerria: Probintzia:  
Sustatzailea:

.....(sustatzailearen ordezkaria).....jauna, bere izenean / ..... (sustatzailea) .....-(r)en izenean jardun (kendu beharrezkoa ez dena) , eta .....-(e)ko .....-(e)an helbidea duena.

Eraikuntza-lanetako segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenak arautzen dituen 1627/1997 EDko 3. artikulua eta antzeko araudia betez, Sustatzaileak, Akta honen bitartez, obra egin bitarteko Segurtasun eta Osasun Koordinatzailea izendatzen du, behean zehazten diren pertsona eta obrarako:

.....(Koordinatzailea).....jn., .....(titulazioa)....., ..... zenbakiaren .....-en Elkargo Ofizialari atxikita dagoena

.....-(e)n, .....-(e)ko .....-(a)ren .....-((e)a)n

**Obra egin bitarteko Segurtasun eta  
Osasun Koordinatzailea**

**Sustatzailearen Ordezkaria**

**Sin.:**

**Sin.:**



**II. ERANSKINA**

**Urtea.....Hilabetea**

Obrako dokumentazioaren kontrol-laukia  
Makinak eta Lan Ekipoak

**OBRRAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Obra:  
Kokapena:  
Udalerria:  
Sustatzailea:  
  
Probintzia:

Makinak Edo Lan Ekipoak	Marka	Modeloa	Matrikula Edo Serie Zk.	EE Markaketa	EE Adostasun Agiria	Makinen Ed-Areliko Egokitzapena	Jarraibideen Liburua Dauka	Mantentzeari Buruzko Liburua Dauka	Makinaren Jabetzari Buruzko Ziurtagiria	Dorre Garbiaren Proiektua, Instalazio Ziurtagiria Eta Marbxan Jartzeko Agiria	2177/2004 ED BETETZEA (Tutu-Aldamioak, Elektrikoak, Etab.)
KONTRATUGILEAK											
AZPIKONTRATUGILEAK											
LANGILE AUTONOMOAK											



**II. ERANSKINA**

**Urtea.....Hilabetea**

Obrako dokumentazioaren kontrol-laukia  
Enpresak eta Prebentzioaren Antolamendua

**OBRAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Obra:  
Kokapena:  
Udalerria:  
Sustatzailea:

Probintzia:

Kontratugile, Azpikontratugile Eta Langile Autonomoen Izen Soziala	Helbide Soziala	I.F.K.	Esleitutako Lanak	Sop Entregatzea Eta Berori Betetzeko Konpromisoa (azpikontratugile eta langile autonomoentzat)	Enpresaren Prebentzio Antolaketa	KPZaren izena (egitekotan)	Prebentzio Baliabidearen Identifikazioa
KONTRATUGILEAK							
KONTRATUGILEAK							
LANGILE AUTONOMOAK							

**II. ERANSKINA**

**Urtea.....Hilabetea**

Obrako dokumentazioaren kontrol-laukia  
Obrako langileak

**OBAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Obra:  
Kokapena:  
Udalerria:  
Sustatzailea:  
  
Probintzia:

Langile/ Enpresaren Izena	N.A.N.	Maila Profesionala	Obran Jarriten Noiz Hasi Den	Obran Jarluteari Noiz Utzi Dion	Azterketa Medikoaren Eguna	Nbe Noiz Jaso Dituen	Sopari Buruzko Hitzaldiaren Eguna	Jasotako Prestakuntza	Baimen Bdliez Erabili Ahal Dituen Makinak	Baimenduta Egoteagatik Egin Ditzakeen Lan Berezi Mota
KONTRATUGILEAK										
